

# ESPALOIETAN OINUTSIK

## Mikelazulo

Lau hormen artean burusoil. Lau hormen artean arnasa zirkulu itsietan gauzatzen da. Irudimenak harridura sortzen du. Besterik ez. Argirik ez. Zigarro lausotuez bonbikak piztu... Ionek bere logelako neurriak hartu zituen: zortzi urrats hegoaldera, sei ekialdera, gorago ezin, behean lurra ez da ageri. Ionek koadro bat pintatu nahi du bere logelako ispiluan. Bere baitan ez dago ispilurik. Zelan aurkitu irudi esanguratsu bat? Zelan kausitu zirra, unkipena eta indarra? Ionek kalera irten nahi du. Ionek koadro bat pintatu nahi du.

Kalean eguratsa aldatu da. Ekaineko larunbata eder honetan aireak kafe usaina du. Kale eraberrituak, oinezkoentzat moldatuak. Espaloietan ezin eseri ordea. Pasoan egoteko sortuak dirudite herriak, etorbideak, zuhaitzen kontrako norabidean hazi diren zementuzko parkeak. Garrantzitsuena bertatik pasatzea da, berdindio noruntz. Ione kale erdian gelditu da, bidazti erratuei so. Ione kalearen erdian ikustezina da.

Parke itxiak, igerileku klimatizatuak, merkatal gune handiak... Ione arrainontzi batean sentitzen da, arrainontzi batetik bestera saltoka, arrainontzi ederrena kausitu nahiean. Ione kalean egon arren, lau hormen artean sentitzen da.

Ionek lau hormen artean du bihotza. Kalera irten eta lau hormen artean sentitzen da. Kalean ordea ez dago leihoirik.

Kafe usaina. Ionek kafearen usaina pintatu nahi du. Udaletxera gerturatu da ideia berriekin asetu nahiean. Erantzuna ordea argia da: eguneko menua aukeratu edo arrautza frijituak jan, hotzgailuan sobera baitaude.

Kalean gizartearen aurrerapenak hutsik daude. Kaleak leku batetik bestera joateko sortuak dirudite, bidean ez omen dago ezer.

Ionek koadro bat pintatu nahi du. Kalean ez bada bizirik, nora jo?

Ione obretan dagoen kale txiki batera abiatu da. Herri hau beti dago obretan. Lurreko baldosak aldatu dituzte bidaztien oinetara egokitzeke. Bide honek ez du sekreturik.

Kafearen usaina jarraitu. Kale kantoi batean Haritz topatu du, kantoiko adreiluak miazkatuz. *Zertan ari zara?* Ondoko atarian Mohamed atezain automatikoei beha, ahotsen bat noiz entzungo zain. Errepide erdian etzanik Marta, lurraren geruzapean jendearen urratsak entzun nahi eta ezin. Mikel eta Jose elkarri besarkatzen semaforoaren gerizpean. Berde jartzerakoan larrua jo. Gorria jartzerakoan aurpegiak tindatu, urrengo une berdea itxoiteko... *¡Y tú de quién eres!* Ionek zapatak kendu ditu, bere oinek espaloietan kafea arnas dezaten. Ionek koadroa bereganatu du.

Orain non zintzilikatu ordea, ahalik eta jende gehienak sentitu dezan... Azti batek xuxurgatu dio: *Niessenheim, Niessenheim...* Berak ordea ezin sinetsi. Urrunegi dago oinutsik iristeko.

Eroak bildu koadroa osatzeko. Kafea arnastu oinekin. Esnatu beste behin. Beti iristen da lau hormen artean esnatzeko unea. Hala ere, Ionek koadroa marraztu du. Ekaineko egun eder bat da eta oinutsik irten da kalera. Espaloiak bere zai daude.





XABIER  
00 OBESO